

# Noaua !!

www.noaua.com




Jostailu erabilien azoka  
egingo da larunbatean



Aritz Esnal, Arrilla II



Juantxo Esnal, Arrilla I



Inaxio Pagola, Iruntxo



Urtzi Olasagasti, Txokolatene



Xabier Dorronsoro

## Igandean, aizkora desafioa

ERRAUSKETARIK EZ  
LURRA BASEPRIA HERRIA  
BIZIRIK



# Hator, hator...

**Alkartasuna**

Elkartea Baserritar Kooperatiba  
alkartasuna@usurbil.com  
Ugarte industrialdea 12  
☎ 943 361 114

Danbolina



Abarkak, txapelak, galtzetinak ...



Pajko loreak



Urmeentzako kamrebila



Gartzainak




Egutegiak



**MAHUKA**  
etxebeste 3 · ☎ 943 361 106



antenas  
**Telemar**



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99  
antenas@telemar.es



**DIGITAL+**



## Albisteak iruditan !!

# Inazio Uriaren hilketara gaitzesteko elkarretaratzea

Inazio Uriaz azpeitiar enpresariaren hilketara gaitzesteko, elkarretaratze isilak deitu zituzten Juan Joxe Ibarretxe lehendakariak eta Jokin Bildarratz EUDELeko buruak.

Deialdiarekin bat eginez, Eako udal zinegotziak eta EAJ-PNVko zinegotzi izandakoak bildu ziren udaletxe aurrean, pasa den ostegunean, eguerdiko 12:00etan. Beraiekin batera, hainbat herritarrek bat egin zuten deialdiarekin.



ELKARRETARATZEA ABENDUAREN 4AN EGIN ZEN, UDALETXE AURREAN.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com  
Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com  
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com  
Publizitatea: Bea Alda, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

ATEZ ATEKO UDAL PROPOSAMENA \_\_\_\_\_ 7. OR.

OSTIRALEAN, "ATE JOKA" ANTZEZLANA \_\_\_\_\_ 13. OR.

PIRRITX ETA PORROTXEN SAIOA \_\_\_\_\_ 14. OR.

HASI DA MENDI ASTEA \_\_\_\_\_ 15. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herra!



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Papera jartzea eta  
Pinturak orokorrean

**FERNANDO**  
**PINTORAK**

943 366 019  
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

LAUKOTE

OKINDEGIA  
KAFETEGIA

Puntapax kalea. 16 behea  
(Artzabal) 943 36 09 80

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TEL: 943 36 20 26  
687 95 12 25

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13

Ojandegia - Gozotegia

**LABE-GOXO**



LUIS ARANALDE

## Zorionak!, Bittoriano

**N**OAUA!!ren 346. alean irakurri dut gure Bittoriano Pikabeak 50 urte egin dituela Aginagako organista bezala. Bejondeiola! 13-14 bat urte badira ezagutzen dudala organojole leial hau. Aginagako koroaren eta nire zerbitzuan jardun zen bertako erretore izan nintzen bitartean eta ezin nuen huts egin efemeride honetan. Zutabetxo hau eskaini nahi diot nire eskerrona azalduz.

Argazkian oso serio agertzen da. Frantses harmonio xahar baten reklatuaren gainean ikusten dira bere behatzak. Nireak baino luzeagoak eta politagoak dira, alajaina! Esalditxo bat zuzendu nahi diot (badakit ez duela gaizki hartuko) bere azalpen horietan: "apaiz batzuk ez zuten belarririk eta beste batzuk gehiegi, Aranaldek bezala". Bittoriano, belarri musikal gehiegirik ez da edukitzen nire uste apailean, beti joan daiteke gaitasun hori fintzen eta trebatzen.

Zutabetxo honetatik animatu egin nahi nuke lan horretan jarrai dezan; nik neuk 51 urte daramatzat organojotzaile gisa: 16 urte nituelarik aukeratu ninduten Altsasuko kaputxinoen kolegioan bertako koroaren musika laguntzaile izan nedin harmonioa joz. Ez zait egundaino damutu. Organoa lantzeko gero eta gogo sutuagoa piztu zuen niregan aukeraketa horrek. Geroztik, ia egun bat bera ere ez nuen pasako pianoa edo organoa landu gabe.

Bi arrazoi dauzkat Bittorianori eskatzeko adore handiz jarrai dezala orain arte bezala:

### A- Musikaren garrantzia bizitzan.

Gizakia gizaki denez geroztik, musika izan da bere bidelagun aberasgarrietarikoa. Musika da gizakiaren adimenaren, sentimenduen, emozioen adierazpen gorena. Gure bizitzaren une guztiak janzen ditu alaitasunez, tristuraz, ausardiak, gozotasunez... Aurreko batean irakurtzen nuen artikulu bat argitaratu berria den liburu baten gainean: "Heziketa emozionala jaioreko aldia": haur baten hezkuntza amaren sabelean hasten omen da eta musikak sekulako eragina du nonbait umea amaren sabelean dagoen bitartean;

eragin magikoa du.

Bibliatik hasi eta greziarren mitologiari jarraituz, musikaren garrantzia azpimarratzen duten hainbat kontaketaekin topatzen dugu. Duela hiru mila urte Saul erregea espiritu gaizto batek harra-patu omen zuen eta arpa jotzen zekien baten bila bidali zituen morroi batzuk, ea espiritu txar hori uxatzen zuen. Eta Dabid gaztea ekarri zioten. Dabidek arpa jotzen zuen bezain pronto espiritu gaiztoak alde egin eta Saul erregea lasaitzen zen. Greziarren artean, berriz, Orfeo gai zen bere lira joaz animala basatienak mantsotzeko, bere maitale Euridize hilen erreinutik ateratzeko... Musikariok, beraz, kontziente izan behar genuke gure arteak energia positibo anitz sortzen duela entzulegoarengan.

### B- Organistaren rol ederra.

Musikak horrenbesteko eragina badu gure bizitzan, nola ez du, bada, izango ospakizun erlijiosoetan. Organista liturgikoa da, berez, kantuaren laguntzaile eta euskarri. Zenbait organojolek protagonistak bihurtzeko tentazioa izaten du; baina, organista liturgikoa zerbitzaria da: Koro zuzendariarena, abeslariarena, ospakizuna presiditzen duenarena... Gainera, garai liturgiko bakoitzari eman behar dio kutsu berezia, sortu behar du aldi horri dagokion giroa. Ez dira berdin Garizuma edo Gabonak, ezta hileta eta ezkontza ere. Ospakizunaren une bakoitzak badu tarterik gure musika sormena eta imajinazioa frogatu ditzagun. Bittorianok oso ondo betetzen du lan hori hain zuzen; gogoratzen naiz zein melodi politak eta goxoak jotzen zituen gorpu bati azken agurra ematerakoan, opariak eskaintzerakoan... Oro har, euskal doinuak eskaintzen zizkigun.

Helder Cámara, Recife (Brasil) artzapezpiku ospetsu eta Askapenaren Teologiaren defendatzaile sutuak esaten zuen musikariok ginela "esperantzaren mezulari". Ba al dago hori baino bokazio ederragorik? Animo! Bittoriano eta jarrai belarriak goxatu eta bihurtzak berotzen!

Luis Aranalde - Aitor Landaluz - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

## Ika-mika!!

### Zabor bilketa era selektiboan eta arrazionalen egin dadin

BAI: Era onenean tratatuak izan daitezten zabor bilketa selektiboari.

BAI: Birziklapenari.

BAI: Konpostajeari.

BAI: Birziklatua eta konpostatua izan denaren berrerabilgarri.

BAI: Orain egiten den eran, papera-kartoa, plastiko eta beiraren bilketa selektiboari.

BAI: Hondakin organikoaren bilketa selektiboari.

BAI: Zabor poltsetan biltzen den erreusaren bilketa selektiboari.

BAI: Orain bezala, neurri handiko hondakinen bilketa selektiboari.

BAI: Orain bezala, arriskutsuak eta kutsagarriak diren hondakinen bilketa selektiboari.

BAI: Ingurumenaren babesari.

BAI: Herritarrentzat eta udalarentzat

merkeena den irtenbideari.

BAI: Orain bezala, herritarrei hobekien dagokien unean zaborrak uzteko aukera askatasunari.

Guzti hori kontuan izanik:

BAI: Orain ditugun 5 zaborrontzien mantentzeari: papera-kartoa, plastikoak, beira, pilak eta erreusa.

BAI: 5. zaborrontziaren kokatzeari (marroia) hondakin organikoak biltzeko, Donostiako Amara auzoan bezala eta Zumaian bezala (ANVk agintzen duen udala).

EZ: "Atez-ateko" bilketari.

EZ: Zabor zati ezberdinak, etxe atarrietan, beharturik finkaturiko ordutegi eta aste-ko egutegi batean biltzeari.

EZ: Ordutegiak errespetatzen ez badira

"larrialdietako guneetara" (Zubieta, Atallu eta Aginaga) zaborra eman beharri, norberak (ibilgailu motordunekin ohiko eran).

EZ: Orain dauden zaborrontziak kentzeari (lur azpian daudenak 6.000 euro balio zuen bakoitzak).

EZ: Beharrezko ez delako, zaborrak biltzeko udal merkataritzako sozietate baten sorrerari.

EZ: Herriko kale eta bideetatik zaborrontziak kentzeari.

Eta Udalak manifestu honetan aipaturikoa onartuko ez balu,

BAI: "atez ateko" zabor bilketaren inposaketaren aurrean herri kontsulta egiteari.

Usurbilgo Herritar Plataformaren manifestua

# Babarrun eta sagardo onenaren bila

## Igande honetan, San Tomas azoka ospatuko da Usurbilen

**A**urtengoan, abenduaren 14arekin egokituko da San Tomas eguneko azoka Usurbilen. Azken urteotan bezalaxe, herritarrek eginiko sagardoa dastatu ahal izango dugu. Eta bertako ekoizleek egindako babarrunak ikusteko aukera ere izango da. Lehiaketa bidez aukeratuko dira aurtengo sagardo eta babarrun onenak. Festa biribiltzeko, Aizkora Txapelketa jokatuko dute, nor baino nor, usurbildar aizkolari gazteek eta beteranoek.

Sagardo zein babarrun lehiaketetara aurkezteko epea abenduaren 11n amaituko da. Azken orduan animatzen bazara, NOAUA!ra ekarri beharko dituzu babarrunak eta sagardoa: babarrunaren kasuan, kilo bat eta trukean 12 euro ordainduko dira. Sagardoaren kasuan, 8 botilen truke, 12 euro.

### Sagardo lehiaketa

Etxean edo baserrian egindako sagardoa bildu ohi da San Tomas azokan. Alegia, sagardotegiek ezin dutela lehiaketa honetan parte hartu.



NOAUA!K, AITZAGAK ETA SAGARDO EGUNAREN LAGUNAK ANTOLATU DUTE SAN TOMAS EGUNEKO EGITARAUA.

### Babarrun lehiaketa

Babarrun lehiaketan, ezaugarri hauek hartuko dira kontuan: itxura, kolorea, berdintasuna, dizdira, garbitasuna... Epaimahaiak erabakiko ditu hiru babarrun onenak.

### Sari ederrak

Babarrun zein sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:  
Irabazlearentzat, 150 euro eta txapela.  
Bigarren geratzen denarentzat: 80eur o.  
Hirugarren saria: 50 euro.

## Badatoz Ikatz eta Lore, Olentzeroren lagunak

**A**ste honetan Aginagan eta Zubietan izango dira. Eta datorren astean, Agerialdeko ikastola eta Kalezarreko Haur Eskola bisitatuko dituzte. Lore eta Ikatz Olentzeroren lagunak dira eta eguberrien berri ematera hurbilduko dira egun hauetan.

2 eta 5 urte bitarteko haurrekin bilduko dira egun hauetan.

Abenduaren 11n osteguna, Aginagako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin bilduko dira, goizeko 10:00etan.

Abenduaren 12an ostirala, Zubietako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleengana joango dira Ikatz eta Lore, goizeko 10:00etan.

Datorren astean, Agerialdeko ikasto-

latik eta Kalezarren dagoen Haur Eskolatik pasako dira. Abenduaren 15ean astelehena, 3 urteko haurrekin bilduko dira Agerialden, goizeko 10:00etan. Abenduaren 16an eta ordu berean, Agerialdeko 4 urteko ikasleekin. Abenduaren 17an goizeko 10:00etan, Agerialdeko 5 urteko haurrekin. Abenduaren 18an, ordea, Kalezarren izango dira Ikatz eta Lore, 2 urteko haurrekin.

### Abenduaren 19an, Olentzerorentzat gutunak

Abenduaren 19an gutun bila pasako dira. Goizeko 9:30ean, Aginaga bisitatuko dute. 10:00etan, Zubietan. Eta 11:25ean, Udarregin gutunak jaso eta kalejiran hartuko dute parte.



IKATZ ETA LORE BISITAN IZANGO DIRA EGUNOTAN.

## "Zurekin egunero"

# kanpainaren bigarren saria Hernanira joan da

**U**rria hasieran, San Markos mankomunitateak ogia erosteko poltsa banatu zuen doan, okindegietan. Eta egunero poltsa erabiltzen zutenek, Arzak birezat afaria irabazteko zozketan parte hartzeko aukera zuten. Azaroko sariak Oiartzun aldera joan ziren. Abendukoak, aldiz, Hernani aldera. Maria Pilar Retegi Retegi hernaniarra izan da saritua izan den bezeroa. Eta Hernaniko Zikuñaga auzoko "Autoservicio Laura" dendaria, saritua izan den saltokia. Ez da zozketa gehiago egingo.

San Markos mankomunitateak adiztera eman duenez, "oso harrera ona egin diote kanpainari ogia saltzen duten establezimenduek zein bezeroek, eta erosleen parte-hartzea oso handia izan da. Izan ere, 192.000 partai-

detza-txartel baino gehiago jaso dira".

San Markos Mankomunitatea osatzen duten 10 udalerrietan ogia saltzen duten dendetan egon da kanpaina martxan: Astigarraga, Donostia, Errenteria, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Urnieta eta Usurbil.

Donostiako Arzak jatetxean bi lagunentzako afaria zen saria.

### Plastikozko poltsak murriztu

Azaroan egin zen lehen zozketa eta sariak Oiartzun aldera joan ziren. Abendukoak, aldiz, Hernanira. Akabo zozketak, akabo sariak. Baina ez dezagun ahaztu helburu nagusia plastikozko poltsen kontsumoa murriztea dela. Beraz, lehen bezain egokia izango da aurrerantzean ere, San Markosek urria hasieran oparitu zuen poltsa erabiltzea, ogia erosten dugun bakoitzean.



SAN MARKOS MANKOMUNITATEKO  
ORDEZKARIAK, ABENDUAN  
JASOTAKO TXARTELEN AURREAN.

## Larunbat honetan, errausketaren aurkako mendi martxa

**G**ipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundeak mendi martxa antolatu du. Donostia, Lasarte-Oria eta Usurbildik abiatuko dira hiru talde. Denek bat egingo dute Zubietan. Eta elkarrekin, errauste-planta jarri nahi duten tokira igoko dira. Mendi martxa larunbat honetan izango da, abenduak 13, goiz partean.

Zubietan errauste-planta eraiki nahi duten tokiraino mendi martxa antolatu da, "Errausketaren aurkako martxa, desjabetzerik ez!" lemapean.

Mendi martxako egitaraua ondorengo izango da:

Antiguitik 9:30ean abiatuko dira, Matia kaletik Añorgara bidean.

Lasarte-Oriatik 10:30ean abiatuko dira, Okendotik Zubietarantz.

Usurbildik ere goizeko 10:30ean

abiatuko dira, frontoitik Zubietarantz.

Talde guztiak Zubietan batuko dira, eguerdiko 11:30ean, eta handik errauskailua eraiki nahi duten tokira joango dira elkarrekin. Gidari eta azalpen lane-tan, lurren desjabetze mehatxupean dauden lurjabeak arituko dira.

13:30erako Zubietan izango dira berriz ere bueltan. Martxan partehartzen duten guztientzat, hamaiketako izango da.



# Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea  
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA

# Atez ateko proposamena, partehartze prozesuaren emaitza

**A**urreko ostegunean, Udalak eta San Markos mankomunitateak atez ateko udal proposamena aurkeztu zuten hedabideen aurrean. Herritarrekin izandako partehartze prozesuaren ondorioz osatu den proposamena dela nabarmendu zuten Xabier Mikel Errekondok.

Herritarren aurrean esandako berbera aipatu zitzaizen hedabideei. Bilketa egunez egingo dela, 06:30etik 08:30era; bi ordu horietan jendeak hondakinak ateratzeko aukera izango duela. Hondakin mota bakoitza egun jakin batean atera ahal izango da, eremuaren arabera -hirigunea, landa eremua...- egun desberdinetan. Bakoitza zein egunetan atera behar den jakiteko, Udalak egutegi bat banatuko die bizila-

gunei, hondakin organikoa jasotzeko ontzi batekin eta birziklatzeko gidarekin batera.

## Etxean konpostatzeko aukera

Gaikako bilketa ez ezik, norberak bere etxean konposta egitearen aldeko apustua egin nahi du Udalak. Lorategia duten etxeei edota landa eremuetan bizi diren bizilagunei udalak konpostagailua utziko die. Eta honekin batera, konposta egiteko doako ikastaroa jasotzeko aukera izango dute interesatuek.

## Udal tasa, merkeago

Konposta egiten duten herritarrek, hobariak izango dituzte. Hondakinaren udal tasan, %40ko beherapena izango dute.

Helburua etxeko gaikako bilketa



AURREKO OSTEGUNEAN EGIN ZEN PRENTSAURREKOA UDALETXEAN.

%80ra iristea dela aipatu zuten Xabier Mikel Errekondo alkateak, baina %90era ere irits daitekeela adierazi zuten.

Hiri hondakinaren arazoari aurre egiteko benetako irtenbidea hau dela aipatu zuten alkateak, eta zentzu horretan, hondakinak errausteak "inolako zentzurik ez" duela azpimarratu zuten.

# Santo Tomas eguna ospatzeko deialdia

Babarrun eta sagardo lehiaketa

Usurbilgo aizkolari txapelketa

Abenduaren  
**igande** goizez

**14an**



Aitzaga  
elkartea

USURBILGO  
SAGARDO  
EGUNAREN  
LAGUNAK

Noaua!!  
www.noaua.com

# Gauza bakoitza bere tokian

**E**guneroko martxan, etxean nahiz lantokian, badira ia etengabe sortu ohi diren materialak: hondakin organikoak, papera/kartoia, ontziak, pixoihalak, erreusa... Ohikoak bezala izendatzen direnak. Baina badira noizbehinka sortzen diren hondakinak ere: sukaldatzeko olioak, etxekotresnak, pilak, boluminosoak... Ohikoak atez ate bilduko dira. Baina noizbehinka sortzen diren horiek, Garbigunera eraman beharko dira. Garbigunea martxan jarri bitartean, San Markosen ibilgailua eta Atallun prestatuko den gune bat izango dira behin behineko alternatibak.

Ohikoak atez ate bilduko dira edota bilketa guneetan. Noizbehinka sortzen diren hondakinak, aldiz, Garbigunearen bidez kudeatu beharko ditugu. Garbigunea martxan ez dagoen bitartean, alternatiba hauek eskainiko ditu Udalak:

Etxeko hondakin arriskutsuak (sukaldatzeko erabilitako olioak, disolbenteak eta pintura poteak, pilak, erradiografiak) San Markoseko kamioira eraman beharko dira.

Bolumen handiko trasteak (koltxoiak, altzariak, etxekotresnak...) eta eskonbroak (obra txiketako soberakinak) Atallun prestatutako gune batera eraman beharko dira.



AURRERANTZEAN, ONTZI HONETAN JASO BEHARKO DIRA HONDAKIN ORGANIKOAK.

## Organikoa

Barazki zein animalia janari soberakinak, gordinak nahiz sukaldatuak.

Fruitu lehorren, arrautzen eta mariskoaren azalak. Materia organikoz zikindutako paperezko eskuzapi eta mahaizapiak, eta sukaldeko papera. Loreak eta landareak, belarra kopuru txikian. Infusio poltsatxoak eta kafe hondarrak. Barnizarik gabe errautsak.



## Trukoak

Usain txarra ekiditeko:

1. Poteko tapakina zabalik eduki gehiegizko hezetasunak alde egiteko eta ez usteltzeko.
2. Arrainak sukaldeko paperez bildu.

## Papera, kartoia

Hondakin organikorik gabeko paper garbia beti, bulegoetako papera, aldizkariak, egunkariak, kartoia.



## Trukoak

Paperezko kaxarik edo poltsarik ez baduzu, sokatxo batez lotu daiteke.

## Beira

Beirazko ontziak, botilak, kontserba poteak, roll-on desodoranteak, eta abar. Keramkarik ez.



## Trukoak

Tapak eta tapoiak ontzi arinetan jarri eta utzi.

## Ontzi arinak

Freskagarri eta kontserba latak, plastikozko botilak, tetra brikak, aerosolak, paper plastifikatua, hortz pasta eta krema poteak (botika poterik ez), aluminio papera eta bandejak.



## Trukoak

Bolumena txikiagotzeko edateko ontzi eta ur botilak konpaktatu.

## Erreusa

Birzikla ezin daitezkeen hondakin ez-organikoak, etxeko hautsa, keramika hondakinak, hautsitako ispiluak, zigarro muturrak, barnizadun errautsak. Pixoihalak eta konpresak.

## Trukoak

Pixa-oihal eta konpresentzako egunero bilketa estra bat dago.



## Etxeko hondakin arriskutsuak

Sukaldatzeko erabilitako olioak, disolbentekak, eta pintura poteak, pilak, erradiografiak.



## Behin behineko funtzionamendua

Garbiguneak funtzionatzen ez duen bitartean San Markoseko kamioiaren zerbitzuak jarraituko du.

## Boluminosoak

Koltxoak, altzariak, etxekotresnak. Inausketak



## Behin behineko funtzionamendua

Garbiguneak funtzionatzen ez duen bitartean Atallun prestatutako gune bat egongo da frakzio hauek uzteko.

## Eskonbroak

Obra txikietako soberakinak.



## Behin behineko funtzionamendua

Garbiguneak funtzionatzen ez duen bitartean Atallun prestatutako gune bat egongo da frakzio hauek uzteko.

# Autokonpostatzearen berri emateko hitzaldi didaktikoa egingo da datorren astean

**H**ondakin organikoak konpost bidez birziklatu daitezke. Horretarako, espazioa behar da. Landa eremuan errazagoa da, baina kaxko inguruan ere badira belazea edo lorategia duten etxeak. Lorategia duenak, bere borondatez, organikoa autokonposta dezake. Horregatik, erraztasun guztiak eman nahi ditu Udalak. Autokonpostajea zer den gertutik ezagutzeko, hitzaldi didaktiko bat egingo da datorren astean Sutegin.

Udala autokonpostatzearen aldeko apustu sendoa egiten ari dela esan daiteke. Konpostagailua utzi eta autokonpostatzeko doako ikastaroa emango die interesatuei. Ez hori bakarrik. Hobariak ere izango dituz-

te. Etxeko hondakin tasan %40ko beherapena egingo zaie autokonpostajea egiten dutenei.

### Abenduaren 16an Sutegin

Autokonpostajeari buruz informazio gehiago jasotzeko aukera aparta izango da abenduaren 16an. Egun horretan, Albert Piqué adituak hitzaldia emango du Sutegin. Kataluniarra da Albert Piqué, Asepma enpresako kidea eta Usurbilen atez ateko bilketaren inguruan autokonpostajea bultzatuko duten hezitzaileak formatuko ditu. Urteak daramatza autokonpostajearen munduan lanean eta formazioarako bidaia aprobetxatuz, ongi autokonpostatzeko hitzaldi didaktikoa emango die Sutegira bertaritzen diren guztiei. Bidaia aprobetxatuz,



KONPOSTAGAILUA UTZI ETA KONPOST EGITEN IKASTEKO DOAKO IKASTAROA JASOKO DUTE INTERESATUEK.

Lasarte-Oria eta Oiartzun ere bisitatuko ditu Piquék.

Usurbilen, hitzaldi didaktikoa abenduaren 16an izango da, asteartea, arratsaldeko 19:00etan Sutegin.

Zuen  
publizitatea  
hemen

☎ 943 360 321  
publizitatea@noaua.com

Patri Jatetxea



K/nagusia. 14. ☎ 943 362 725

teilatua eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**



Obaba kalea 29 · ASTEASU  
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

# Igandeko lehia ikusgarria izango da

## Herriko aizkolari beteranoak eta gazteak aurrez aurre arituko dira

**A**benduak 14, igande eguerdia. NOAUA!k antolatutako San Tomas azoka. Bi aizkolari belaunaldi aurrez aurre; Inaxio Pagola "Iruntxo", Juantxo Esnal "Arrilla I", Urtzi Olasagasti, Xabi Dorronsoro eta Aritz Esnal "Arrilla II". Dema plazan, eguraldi txarra egiten badu, Askatasuna plazan. Burutu beharreko proba; bana-ka, 45 hontzako bi enbor eta kana-erdi-ko lau. Aitzaga Kultur Elkarteak antolatu-tuta, sarrera doan. Galdu ezin den lehia. Gerturatu eta ikusi.

NOAUA! Nondik dator proba anto-latzeko ideia?

Troia. Santixabeletan Peñagarikanoren omenaldian herriko bi gazte aritu izan eta herrian lau badirela ikusita, plaza jarri behar geniela pentsatu genuen, motibazio bat izan eta duten zaletasunari eusteko.

### 3 GAZTE, 2 BETERANO

"Juanito Alkorta lesionatu da eta azkenean bostekin jokatu da proba"

Hortik sortu zen guztia. Lehen aizko-ran ibili eta oraindik zaletu bezala ari-tzen diren beteranoak izanda eta lau gaz-terekin txapelketa motz samar ikusten genuenez, haiei komentatu genien. Topera ari dira orain.

N. Tartean, beteranoak zaudete, duela 20 urte antzeko txapelketa batean parte hartu zenutenak?

Arrilla I. Duela hogeitau urte herri mai-lako txapelketa bat antolatu zen. Oso ona izan zen, lan dezenterekin gainera. Beteranoak baziren; Auzmendi... Alde horretatik, denak animatuta ginen. Oso umore ona jarri genuen eta lana oso ona izan zen. Hartatik giroa oso bero geratu zen. Batzuk ordutik aurrera segi dugu, zaletasun moduan. Igandero saioak eginez, geure hamaiketakoak dastatuz. Oraindik ez dugu erabat utzi,



EZKER ESKUIN, ARRILLA I ETA IRUNTXO, IGANDE HONETAN AIZKOLARI TXAPELKETAKO PROBAN ARITUKO DIREN "BETERANOAK".

baina segitzeko ere ez da batere samu-rra. Zaila izan eta lana ondo egiteko asko sufritu behar da. Lotura handia eskatzen du. Orain, txapelketa hau antolatu da eta gustura ari gara.

N. Prestatzen zabilzate, gogor?

A. Lau bat hilabete entrenatzen, serio samar azken hilabete eta erdi inguruan. Semea ere hor dabil, gustura, animatuta. Elkarren borroka txiki bat egingo ote dugun.

N. Herriko bi aizkolari belaunaldi, aurrez aurre ikusiko ditugu?

T. Berez, hiru beteranok parte hartu behar zuten; Juantxo Esnalek, Iruntxok, eta Juanito Alkortak. Bestetik lau gazte-ek; batek lan arazoengatik utzi behar izan du. Hiru gazte geratu ziren. Seiko taldea osatua genuen; hiru adineko eta hiru gazte. Baina Juanito Alkorta lesio-natu da eta azkenean, bostekin jokatu-ko da proba. Gazteek beren koadrila era-mango dute, giro ederra sortuko da. Beteranoen alde ere jendeak egingo du. Bestalde, beti Aitzaga Kultur Elkarteak zerbait berezia antolatu izan du azaroa-ren leko arratsaldeetan; herri kirolekin lotuta.

N. Gazteak erakarri dituzue. Zure kasuan, semea?

A. Duela bizpahiru urtetik biok ibil-tzen gara, beste lagun batekin. Igandero. Orain, semea tartean dela, berari laguntzen. Serioa da gaia.

N. Proba egunean ere serio arituko zarete?

A. Han, bakoitza bere lanetara joan-go da. Etxekoak gara, baina une horre-tan ez dago lagunik. Semeak motiba-zioa badu hori egiteko. Kirola oso gogorra da, teknika handikoa eta jarrai-pena behar du. Bera gustura dabil egin-dako lanekin. Aspaldi zebilen, aukera etorri zaio azkenean, baliatu du eta ia orain zer ateratzen den.

N. Lehen, aizkolari gaztearen pape-rean, eta orain beteranoarenean egon-da, probari aurre egiteko ikuspegia zer modutan aldatzen da?

A. Gu adinean aurrera goaz. Nahi dugu baina ezin. Urduritasun maila ere jaitsi egiten da. Nekea hor dago. Duela hogeitau urte ere, zaharrenak 45 urte inguru izango zituen. Nik orduan 27 urte nituen, gaur gazteek duten adina. Zer aldaketa dagoen.

## “Proba indibiduala izango da”

**NOAUA! Proba nolakoa izango da?**

**Troia.** Proba indibiduala izango da, laguntzailerik gabe. 45 ontzako egur batekin hasi, lau kana erdikoeekin segi, eta 45 ontzako batekin bukatuko da. Ez da lan luze bat, baina bai gogorra, plazara aterata lanak bukatu egin behar baitira, ez dago amaitu gabe uzterik.

**N. Egin apustua...**

**A.** Zer pasako den eta guk zer maila emango dugun esatea zaila da. Egun berean ikusi beharko da. Indartsu hasi arren, gero segi egin behar da. Erritmoa markatzea oso zaila da. Aurrera samarrean gazteek joan beharko lukete. Santixabeletan egindako lana ikusita, gazteak berea egingo du. Mutila handia da. Guk ere geure maila egiten badugu, estutuko ditugu. Guk gerra eman? Gustura emango dugu. Gazteek ere hori pentsatzen dute, beteranoek zer egingo dugun. Kezka hori izatea oso polita da.

### ARRILLA I

“Geure familientzat sorpresa handia izan da, oso polita, giroa berotzen ari da...”

**N. Duela hogeitun urte, zer nolako emaitzak eskuratu zenituzten?**

**A.** Orduan, txapela lortu nuen. Lan handia zen. Baina adina hor zegoen eta ondo entrenatu genuen. Lehenbizi ni geratu nintzen, bigarren Juan Auzmendi, hirugarren Joxe Luis Alkorta, eta laugarren, Juanito Alkorta. Lehia estua izan zen. Lehen bien artean, segundoetako tartea zegoen.

**T.** Ordukoa gaur egun, Gipuzkoako txapelketan egiten den lan ofiziala litzateke.

**N. Giro ederra sortuko zen?**

**A.** Garai hartako txapelketaren aurretik elkarren arteko joko batzuk izan ziren. Txapelketaren ideia sortu zen gero. Antolatuko ote genuen pentsatzeko elkartean bildu ginen. Geuk egin



URTZI OLASAGASTI, XABI DORRONSORO ETA ARITZ ESNAL ARRILLA II,

TXAPELKETAKO LEHIAKIDE GAZTEAK.

genuen guztia; dirua jarri, kontratuak prestatu, gastuei aurre egin...

**T.** Orduko filosofi bera mantendu nahi izan da egun, orduko lan maila jaitzita eta sarrerak kenduta. Herritarrak erakarri eta ondo pasa dezaten. Lehen jendea aizkolariak ikustera joaten zen. Orain aldiz, aizkolariak gerturatu behar dira herritarrengana. Igandeko proba erosoagoa da aizkolariarentzat. Guk jarriko dizkiegu egurrak, aldagelak hobea-goak dira, gastuak ordainduta, seguruak eginda...

**N. Urduritasuna handitzen doa proba eguna gerturatu ahala?**

**A.** Behar du. Urduritasuna badago, gorputzean motibazioa duzun seinale. Aldiz, urduritasunak lotzen bazaitu, kontuz. Urduri arituko gara igandean. Oihu dezente izango da. Jendea animatuta joango da.

**N. Zergatik joan aizkolari proba ikustera?**

**T.** Azkeneko hogeitun urteetan ez baita izan eta akaso beste hogeitun urteetan ez baita izango. 1988an egin zen txapelketa hartatik jende batek segi duelako aikorran. Eta gazte batzuk daudelako hor. Merezi du joatea. Politu geldituko da, txistorra jan, baserrietako sagardoa das-tatu eta aizkolariak ikustea, goiza osatua. Jai giroa ziurtatua dago.

**A.** Geure familientzat sorpresa handia

izan da, oso polita. Jendeak ikusiko du. Giroa berotzen ari da. Denok gozatu dezagun egun horretan. Giro ona izan eta festak inor minik hartu gabe buka dezala.

### “Aurtengoa polita ateratzen bada...”

**NOAUA! Aurrera begira, proba hau antolatzen jarraitzeko ohitura sortu nahiko zenukete?**

**Troia.** Lehen pilotako txapelketa antolatzen zen. Badakigu ez dela berdina. Pilotan edonork joka dezake, bakoitzak bere mailan, eta aikorran norberak egin behar du. Gazte hauek aurrera jarraitzen duten ikusiko dugu. Aurten hiru dira, laugarren bat animatzen bada eta urtean behin plazara ateratzea nahiko balute, aukera emango diegu.

**Arrilla I.** Gazteen nahia ikusi behar da. Aurtengoa polita ateratzen bada, berotuko dira gazteak. Akaso beste bakarren bat ere animatuko da. Gastu handiak dira, laguntzarik ez dago. Norberak egin behar izaten du guztia. Entrenamenduak oso gogorrak dira; egurra prestatu, ebaki... Gaur erabilitako egurra bihar ez dago. Halere, gustukoa izanez gero, norberak bilatuko ditu jarraitzeko bideak.

# Elkartrukean

## Jostailu Erabilien Azoka egingo da larunbatean frontoian

**E**guberriak erosketen sinonimo izan ohi dira, besteak beste, gaztetxoentzako opariak egiteari dagokionean. Baina zertarako erosi produktu berriak, erabilitakoak baliatu ditzakegunean? Galdera horren erantzuna badute, Hitz Aho Guraso Elkarteak: "Nirea zuretzat, zurea niretzat... aizu tori eta ekarri hori!". Bigarren aldiz, trukaketan oinarritutako jostailu erabilien azoka antolatu dute abenduaren 13rako, frontoian. Egunotan materiala bilketa lanak egiten ari dira Sutegin. Beharrik izan ez eta etxean egon ohi diren jostailu, liburu eta bestelakoak kultur etxean uztera, Hitz Aho-ren ekimenean parte hartzea deitzen dute antolatzaileek.

Gaztetxoenen urteroko oporrik gustukoenetakoak gerturazten ari dira, eguberriak. Aisialdiaz gozatzeko tarte zabalagoa izango dute, Olentzerok ekarritako opari estreinatutako gabeekin, edo zergatik ez, erabiliekin jolasteko. Gaztetxoentzako produktu berriak nonahi aurki ditzakegu, ez da hain erraza ordea, beste norbaitek erabilia izan eta behar ez duen jostailu edo ipuin bat eskuratzea.

### JOSTAILU AZOKA

"Berrerabilpena bultzatu eta gehiegizko kontsumoaz ohartarazi nahi du Hitz Aho Guraso Elkarteak"

Berrerabilpena bultzatu, erabilpena jabe goaren gaintik jarri eta gehiegizko kontsumoaz ohartarazi nahian, Hitz Aho Guraso Elkarteak iaz proposamen berritzaile bat antolatu zuten; goiz batez, alde zuzenetik herri-tarrek etxean baliatu edo behar ez zituzten jostailu, ipuin, liburu edota CD-ak bilduta, elkartrukea bultzatu



IAZ ERE EGIN ZEN JOSTAILU ERABILIEN AZOKA. EGUNOTAN, MATERIALA BILTZEN ARI DIRA SUTEGIN.

zuen azoka egitea.

Ekimenaren lehen edizioan, pilotalekuan kokatutako mahai luze bat, mota guztietako jostailuz bete ahal izan zuten. Azoka haren bezperatan etxean izan, erabiltzeko beharrik eduki ez eta beste edonori baliagarria suertatuko zitzaizkion, herritar bat baino gehiago hurbildu zen Sutegiko erakusketa aretora jostailuak eta bestelakoak uztera.

### Jostailu bilketa, Sutegin

Aurten, iazko esperientzia errepikatzea erabaki dute antolatzaileek. Duela urtebetekoaren haritik joango da. Ostiralera bitarte Hitz Aho-koek jostailu bilketa lanak egingo dituzte Sutegin. Jasotakoa erakusgai jarriko dute larunbat goizean frontoian.

### Elkartrukea, oinarri

Jostailuek baldintza onetan egon behar dute, osorik, norberak hartzea nahiko lukeen moduan. CD Rom-ak, DVD-ak edo antzekoak uzten badira, jatorrizkoak izan behar dute. Bilketa egunetan Sutegira eramandakoaren truke nahi duenak txartel bat jasoko

du, norberak eramandako jostailua beste batengatik aldatzeko baliagarria izango zaiona azoka egunean.

Azoka amaituta, hartu gabe, bertan geratzen diren jostailuak Gobernu Kanpoko Erakunderen bati emango dizkiote antolatzaileek.

**ABENDUAK 13 LARUNBATA**

**JOSTAILU ERABILIEN AZOKA**

Ordutegia: 12:00-13:30.

Tokia: frontoia.

**JOSTAILUEN BILKETA**

Noiz: abenduak 10-12.

Ordutegia: 17:00-18:30.

Tokia: Sutegi.

**Antolatzaileak:** Hitz Aho Guraso Elkarte eta Udala.



# Komedia, "Ate Joka"

Joseba Usabiaga, Iker Galarza eta Sara Cozar aktoreak, ostiralean Sutegin

